


# Oiartzungo XXVII.



Rosa eta



Poesia



LEHIAKETA 2014

Oiartzungo XXVII.  
Prosa eta Poesia lehiaketa  
**2014**

## Sarrera

---

*Oiartzuar agurgarriok!*

*Aurten ere, beste behin, Oiartzungo udalak antolatutako XXVII. Prosa eta Poesia Lehiaketarako haur zein nerabe askok osatu dute euren istorioa. Eta esku artean duzuen liburuxka honetan dituzue saritutako lanak.*

*Euskarazko literaturaz gozatzeko, euskaraz irakurtzeko ohitura hartzeko eta idazteko zaletasuna sustatzeko helburuarekin jarri zen martxan lehiaketa hau. Eta dudarik gabe, urtero izaten dugu herriko haur zein gazte egileen lanez gozatzeko aukera.*

*Gabonen inguruan izaten da sari banaketa, ohiturari jarraituz, herrian bertan Txerri Eguna ospatzen dugun egun berean hain zuzen. Udaletxe-ko pleno aretoan biltzen gara udaleko ordezkariak, sarituen senide zein lagunak, aurkeztutako lanak irakurtzen eta aukeraketa lanetan aritu diren epaileak, ikastetxeetako irakasleak eta egun horretan protagonista diren haur eta gazte idazleak, noski!*

*Urduritasuna nabari izaten da sarituen artean. Lehen aldiz sarituak diren haurrak eta gazteak lotsatua etortzen dira. Ama edo aitaren eskutik etortzen denik ere bada eta baita egoera hori arrotza egiten ez zaionik ere. Baten bat saria jasotzerako orduan irakurtzera ere ausartzen da eta orduan izaten dugu aukera beren lanen zatiren bat zuzenean entzutekoa. Polita izaten da momentu hori. Orduan ikusten da zein ongi idazteko gaitasuna duten. Aurten, hunkitu nauen lanik ere bada tartean.*

*Literatur lan hauek irakurtzera gonbidatzen zaituztet. On dizutela!*

**Irati Etxebeste Madariaga**  
Euskara Zinegotzia



Oiartzungo Prosa eta Poesia Lehiaketaren 2014ko saridunak

**2014ko epaimahaikideak:**

**Pello Añorga**, Ipuin kontalaria

**Goiatz Labandibar**, Kazetaria eta idazlea

**Iñaki Arbelaitz**, Oiartzun irratiko kolaboratzailea

**Aingeru Palomo**, Irakaslea

**Udal Bertso Eskola**

**Intxixu AEK euskaltegia**

**Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea**

**Lehendakaria:** Irati Etxebeste Madariaga (Euskara Zinegotzia)

**Idazkaria:** Aitziber Arnaiz Garmendia (Euskara Teknikaria)

**Zuzenketak:** Arkaitz Goikoetxea Arriola

## 2014ko saridunak

Saila	Maila	Prosa	Poesia
1. saila	LH 3	Jurgi Arbelaitz Guridi <i>ZALDUN AUSARTAK</i>	
		Haizea Goñi Miguel <i>HAIZEA, JUNE ETA NORA MENDIRA DOAZ</i>	
2. saila	LH 4	Unax Landa de Marcos <i>USO MEZULARIAK</i>	
		Araitz Ortega Urdanpilleta <i>NIRE AHATE MAITEA</i>	
3. saila	LH 5-6	Beñat Albisu Belarra <i>FABRIKA MAJIKOA</i>	Eider Maya Sanzberro <i>URTAROAK</i>
		Malen Sarasola Olaziregi <i>IRATXOAK BASOAN</i>	Lohizune Telletxea Delgado <i>BARRUKO MIÑA</i>
4. saila	DBH 1-2	Yvonne Retegi Simó <i>AURRERANTZ BEGIRA</i>	Markel Irastorza Zabalegi <i>AMETSIK HANDIENA</i>
		Markel Urkia Unanue <i>PARADISUAREN BILA</i>	Izaro Telletxea Delgado <i>BELDUR NAIZELAKO</i>
5. saila	DBH 3-4	Oihan Lopez Fraile <i>OSABAREN ITZALA</i>	Narora Del Río Muguerza <i>GIZAKIAK, GIZAKI HUTSAK</i>
		Lur Gaztelumendi Beristain <i>KALE KANTOIAN</i>	Jokin Irastorza Zabalegi <i>IRAGANA, GEROA</i>

## Aurkibidea

### Prosa

<i>Zaldun ausartak</i>	12
<i>Haizea, June eta Nora mendira doaz</i>	14
<i>Uso mezulariak</i>	16
<i>Nire ahate maitea</i>	18
<i>Fabrika magikoa</i>	20
<i>Iratxoak basoan</i>	23
<i>Aurrerantz begira</i>	25
<i>Paradisuaren bila</i>	28
<i>Osabaren itzala</i>	30
<i>Kale kantoian</i>	34

### Poesia

<i>Urtaroak</i>	40
<i>Barruko mina</i>	42
<i>Ametsik handiena</i>	44
<i>Beldur naizelako</i>	46
<i>Gizakiak, gizaki hutsak</i>	48
<i>Iragana, geroa</i>	50

# *Prosa*

Oiartzungo XXVII. Prosa eta Poesia lehiaketa

**2014**



**Jurgi Arbelaitz Guridi**

**1. SAILA**

PROSA

---

## *Zaldun ausartak*

Baziren behin Oiartzungoak ziren bi zaldun gazte eta eder. Neska guztiak harriturik zeuden haien edertasun eta balentriekin. Gainera, bihotz oso onekoak ziren.

Haien bihotza diamantezkoa bezala zen. Buruz ere oso azkarrak ziren. Eta erregea oso harro zegoen beraiez. Eta, jakina, beraien izenak Jurgi eta Iker ziren.

Gau batean, bidaia eder bat egiten ari zirela:

- Muuuuuuu!

Eta esan zuten:

- Kontuz ibili behar dugu! Hemen inguruan zerbait arriskutsua dabil.

- Bai hori uste dut nik ere, eta oso arriskutsua, gainera.

Zer zen pentsatzen hasi ziren.

- Zezena? Ez dakit... Minotauro bat da!

- E! Tranpa bat jarriko diogu.

- Baina zein tranpa? Badakit! Bat ezkutatu egingo da (esaterako zu), nik zu zauden lekura erakarriko dut eta zuk bat-batean zast! lepoa moztuko diozu. Zer iruditzen?

- Ideia bikaina!

Esan eta egin. Baina minotauroaren zonbia berpiztu egin zen. Eta amildegiz ertz batera eraman zituen. Jurgi eta Iker oso ausartak eta azkarrak zirenez,

beste tranpa bat jarri zuten. Minotauroa oso azkar joan zen eta haiek harripatzeaz zegoela, kendu egin ziren eta minotauroa gelditu ezinik amildegitik erori zen.

Eta azkenean biak ezkondu egin ziren. Eta minotauroaren zonbia hor ibiliko da oraindik seguruenik. Biak oso ondo portatu ziren. Nahiz eta hilik egon, oraindik lurrean daude haien diamantezko bihotzak. Eta, gainera, bakea izan zen 500 urtez nagusi.

---

*Jake*



**Haizea Goñi Miguel**

**1. SAILA**

PROSA

---

## *Haizea, June eta Nora mendira doaz*

Udazkena hasten denean hiru lagun elkartzen dira kalean eta erabakitzen dute mendira joatea.

Gurasoengana joan dira eta baimena eman diete. Gero joateko gauzak prestatzen dituzte eta prest daude mendira joateko. Orduan frontoian elkartzen dira berriro. Junek esaten du:

- Prest?
- Bai!!! –erantzuten dute Haizea eta Norak.
- Orduan, goazen mendira!!! –dio Junek.

Mendiko bidean zuhaitzak zuri-gorritz margotuak zeuden eta ez zuten ulertzen zergatik zeuden marraztuta. Orduan, Norak hiztegia eraman zuenez, June eta Haizeak esan zuten:

- Zu gabe ez genuen jakingo zertarako diren marra zuri-gorriak.

Eta Haizeak:

- Irakurri, irakurri.
- Bale, bale –esan zuen Norak.
- Esan nahi du bide luze eta gogorra dela.
- Lasai, guk egingo dugu –esan zuen Junek.
- Ba aurrera!!!
- Bat, bi, bat, bi... abiatu ziren.

Baina bat-batean zerbait sumatu zuten. Haizearen urduritasuna zen. Norbait edo zerbait sumatzen zuten beren alboan. June eta Nora ere urduri jarri ziren.

Denak besarkatu egin ziren beldur gutxiago pasatzeko.

Bat-batean zuhaixka artetik animalia bat agertu zen: hartza!

Gehiago estutu ziren eta geldi-geldi zeuden. Hartzak hitz egin zuen:

- Ni galdu egin naiz.
- Nora joan behar duzu? –esan zuen Norak.
- Basoko beste puntara.
- Guk lagunduko dizugu. Mapan begiratuko dugu nola itzuli beste puntara.

Lagundu zioten eta hartzak eskerrak emateko basoko bide misterioetsuen mapak oparitu zizkien.

Hiru neskak mapekin etxera itzuli ziren eta mendiko bide sekretu guztiak ezagutzen dituzte.

---

*Kukuluku*





**Unax Landa de Marcos**

**2. SAILA**

PROSA

---

## *Uso mezulariak*

Baziren behin aspaldi-aspaldian Beñat, Andoni, Jose Lorentzo eta Ekain izeneko lagun batzuk. Beñat handia eta argala zen, Andoni moxtaka, Jose Lorentzo txikia eta argala eta Ekain altueraz ere handia eta zotza baino argalagoa. Beñat, Andoni eta Jose Lorentzo herrian bertan bizi ziren, baina Ekain ez zen herrian bizi, Ekain Bianditz mendi ederraren kaxkoan bizi zen.

Beñatek, Andonik eta Jose Lorentzok etxean usoak zituzten eta Beñatek esan zuen:

- Zergatik ez diogu Ekaini usoekin mezu bat bidaltzen?
- Ongi iruditzen zaigu –esan zuten Andonik eta Jose Lorentzok batera.

Mezua bidali ondoren, Beñat, Andoni eta Jose Lorentzo itxaroten gelditu ziren, ordu erdi... ordu bat... bi ordu baina usoak ez ziren itzultzen eta azkenean Jose Lorentzok esan zuen :

- Ni mendira noa usoen bila.
- Gu ere bagoaz.

Mendira abiatu eta aurkitu zituzten bi usoak zaurituak eta ondoan ehiztari bat. Ehiztaria Andoniren aitaren osaba zen eta Andonik esan zion:

- Uso horiek gureak ziren, lagun bati mezua bidaltzeko prestatuak daude.

Ondoren osabak barkamena eskatu zion. Oso gaizki eta triste sentitzen zen, egindakoaz benetan damututa zegoen.

- Ez dut gehiago usorik hilko –esan zuen osabak.

Handik hilabete batzuetara hirukote hark beste mezu bat bidali zioten Ekaini.

Ehiztaria hain damu zen, Andoniri, Beñati eta Jose Lorentzori pastel bat oparitu zien Ekainekin batera jateko.

Aurrerantzean ere lagun ederrak izaten jarraitu zuten.

---

*Pilotari*



**Aritz Ortega Urdanpilleta**

**2. SAILA**

PROSA

---

## *Nire ahate maitea*

Bazen behin 9 urte zituen neska bat Amaiur izenekoa. Amaiurrek ile horixka zuen eta begiak itsasoa bezain urdinak zituen. Amaiur Zizurkilgo baserri batean bizi zen amarekin. Baserri handia eta polita zen, eta abere pila bat bizi ziren: behiak, ardiak, zaldiak, antzarak, ahateak... Amaiurrek ahate bat zuen. Ahate zuri-beltz emeak Deisi izena zuen.

Amaiurrek egunero garbitu eta lastoa jartzen zion Deisiren txabolari. Ura eta janaria jarri ondoren Deisirekin jolasten zen eta bere atzetik joaten zen ahatea.

Udako egun eguzkitsu batean ikastolatik itzultzerakoan zelaira joan zen Amaiur Deisirekin jolastera. Bat-batean ahatea ez zegoela konturatu zen eta oihuka hasi zen amari deika:

- Ama, ama!!! –deitu zuen Amaiurrek.
  - Zer duzu, laztana –erantzun zion amak.
- Ama Amaiur bezalakoa da, ile hori eta begi urdinekoa.
- Non dago Deisi? –aldetu zuen izututa Amaiurrek.
  - Ez nizun esan nahi, baina...
  - Zer egin duzue? –esan zuen Amaiurrek negar zotinka.
  - Jateko hil dugu! –esan zuen amak burumakur.
  - Zergatik? –oihukatu zuen Amaiurrek

- Badakit Deisi asko maite zenuela baina gizaki gehienok animaliak hil behar ditugu bizitzeko. Animalia gabe ezingo ginateteke bizi –esan zuen amak-. Ulertzen al duzu?

- Bai, ama baina asko gustatzen zaizkit animaliak!
- Etorri, sorpresa bat dut zuretzat –esan zion amak.

Biak inkubagailura joan ziren. Ireki eta amak esan zion:

- Politak al dira?
- Bai!! Hartu ditzaket?
- Bai.
- Deisiren hogeitakumek dira! UAUUUUUU!!

Deisiren ondorengoak han zeudela konturatu zenean, Amaiur lasaitu egin zen.

---

*Luma*



**Beñat Albisu Belarra**

**3. SAILA**

PROSA

---

## *Fabrika magikoa*

Behin batean, udako oporretan, mutiko-neska talde bat zozketa batean zeuden.

Xabier mutiko alai eta isekaria zen, begi marroi era handikoa. Leire neska bihurri bat zen, betaurrekoak erabiltzen zituena. Jon mutiko kurioa zen, eta nahiko gozozalea. Maddi neska ausarta zen, ile luzearekin.

Gurasoekin bidaia baterako ari ziren egiten zozketa. Bidaia Hawaiiira zen. Eta bat-batean...

-... 3462.

- Baiiiiiii! –esan zuten gure lagunek.
  - Tokatu egin zaigu! –esan zuen Xabierrek.
  - Toma! Jon! Bi euro eman behar dizkidazu, apustua irabazi dut! –Maddik.
  - Jo! Ez da justua! –Jonek.
  - Beno, ez du inporta, orain Hawaiiira goaz! –Leirek.
- Hurrengo egunean, hegazkina hartu eta Hawaiiira joan ziren.
- Begira, Pazko uhartea! –Maddik.
  - Nola? Pazko uhartea Hego Amerikan dago! –Jonek.
  - Eta zer? –Maddik.
  - Bada, hau ez da gura hegazkina! – berriz Jonek.
  - Zeeer? –denek batera.

Hegazkina lurreratu zenean, ez zekiten zer egin.

- Beno, nola hemen gauden, goazen esploratzera! –esan zuen Xabierrek.
- Bale, baina hurrengo hegazkina etortzen denean, joan egingo gara, bale? –Maddik.

Eta horrelaxe jarri ziren gure lagunak esploratzen. Bat-batean gura lagunak gelditu egin ziren, buru formako estatua batzuk zeuden eta.

- Aizue, hau lehenago hemen al zegoen? –esan zuen Leirek.
- Bada, nik uste dut ezetz, ezta? –Xabierrek.

Lagunak ikustera joan ziren. Jon ingurura begira ari zen eta zuhaitz bat jo eta, bat-batean, estatua baten ahoa ireki zen, eta lagunak sartu egin ziren.

- Oooooo! –esan zuten denek batera.
- Hau igogailu bat bezalakoa da! –esan zuen Maddik.

Ondoren atea ireki zen eta... eta...

- Uau! –esan zuen Jonek-. Begira zenbat gozoki!
- Gozokiak eta untxiak! –Leirek.
- E, agian hemen bizi da Pazko untxia! –esan zuen Xabierrek.
- Egia! –Leirek.
- Ñam! –Jonek.

- E! –entzun zen-. Aizue! Ezin duzue hemen egon! –berriz-. Hemen behean! –lagunek behera begiratu zuten.

- Ooooo! Begira zer untxitxo polita! –esan zuen Leirek.
- Itxaron, zergatik ezin gara hemen egon? –Jonek.
- Bada, sekretua delako! Etorri nirekin.

Eta kanpora eraman zituen.

- Tira, egin salto hona!

Eta zulo bat ireki zen.

- Egiteko salto!

Eta bultza egin zituen.

- Aaaaaa!

Erori egin ziren.

Bat-batean Hawaiiin agertu ziren.

- Hara! –esan zuten denek.
- Non gaude? –esan zuen Xabierrek.

- Xabier! Jon! Maddi! Leire!
- Ama! Aita! –esan zuten denek.
- Baina, non egon zarete?

Lagunek ez zuten txintik esan.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila fabrika magikoan!

---

*Tutti Frutti*



**Malen Sarasola Olaziregi**

**3. SAILA**

*PROSA*

---

## *Iratxoak basoan*

Aspaldi-aspaldian, baso erreinuan iratxoak bizi ziren zuhaitzetako hosto-  
toen gainean. Egun batean, bi ikertzaile etorri ziren baso erreinura gauza  
berri batzuen bila. Bat-batean, iratxo bat ikusi zuten baina ezin izan zuten  
harrapatu. Iratxoa aztertzeko nahi zuten. Baina arrunt azkarra zen... Iratxo  
horrek bere familia osoari abisatu zion eta denak oso urduri jarri ziren. Poliki  
-poliki, beren etxeak babesten hasi ziren.

Lehenengo, perretxiko pila bildu eta aterki erraldoi bat osatu zuten. Gero,  
hostoak bota zituzten gainetik, agerian ez gelditzeko. Denak jo eta ke ari zi-  
ren bitartean, lau iratxok ez zuten deus ere egiten. Egonean egon eta edan  
eta edan. Baina ikertzaileak geroz eta gertuago zeuden.

Horrela zebiltzala, Iratxo langileek etxera sartzeko esan zieten beste lau  
iratxoei baina haiek ez zuten sartu nahi izan. Azkenean, ikertzaileak agertu  
eta lau iratxoak eraman zituzten zaku marroi batean. Alferrikako oihuak en-  
tzuten ziren zakutxotik. Laborategira eraman eta ikertzen hasi ziren.

Bitartean, makina franko hartuta, bost pertsona etorri ziren basora zuhaitz  
mozteko asmotan. Bat-batean, pertsona horiek iratxoek eginiko lan guztia  
txikitu, iratxo guztiak hartu eta eraman egin zituzten. Beno, denak ez, iratxo  
txiki bat utzi zuten ahaztuta.

Iratxo txikia isil-isilik laminaren lakura joan zen eta gertatutako guztia  
azaldu zion negarrez laminari. Hark lasai egoteko esan zion iratxo txikiari,  
berak babestuko omen zituen bere ingurukoak.

Ikertzaileen laborategian zeuden 4 iratxoak banaka-banaka aztertu zituzten baina tamainarena aieka batera utzita, ez zuten deus berezirik ikusi. Iratxoak basora itzultzea bururatu zitzaion ikertzaile bati baina besteak ezetz eta ezetz, azterketa gehiago egin behar zizkietela.

Hala zebiltzala, zerbait berezia aurkitu zuten. Nonbait, hasiera batean, pertsona handiak ziren, zu eta ni bezalakoak. Baina egun jakin batean, baso erreinuan sortutako magia baten ondorioz, denak iratxo bihurtu zirela ikusi zuten.

Ikertzaileak iratxoei buruzko informazioa idazten ari ziren bitartean, iratxo txikia agertu zen. Oso izututa zegoen baina bazekien bere anai-arrebak eta ingurukoak askatzeko bizia arriskuan jarri behar zuela. Iratxo guztiek leihorantz jo zuten eta azpian itsasoa zegoela konturatu ziren. Hala eta guztiz ere, salto egitea erabaki zuten. Hondoratuz eta hondoratuz joan ziren, poliki-poliki. Ur azpian geratu ziren.

Baina laminak hitzeman bezala, hantxe agertu zen iratxoak salbatzeko. Goxo hartu eta goiti eta goiti joan zen, ur azalera agertu arte.

Berriz ere basora bueltatzean, hantxe ikusi zituzten beste iratxoak ere. Den-denak libratzea lortu zuten iratxo txikiak eta laminak! Elkar besarkatu eta berriz ere herrixka eraikitzea lortu zuten. Iratxo txikiari eta laminari festa handi batekin eskertu zieten egindako guztia.

Ordutik hona, inor gehiagok ez zuen iratxo horien berririk izan.

---

*Lamia*



**Yvonne Retegi Simó**

**4. SAILA**

PROSA

---

## *Aurrerantz begira*

**2014ko martxoaren 10a, ostirala. Sahara.**

Ainhoa naiz.

Beti izan naiz iraganaren beldur. Txikitik zerbait egin eta horren ondorioa zein izango zen edo ondoren zer gertatuko zen horrek asko urduritzen ninduen eta, hainbatetan, barnean tristura handi bat ere sortzen zidan.

Horren ondorioz, malko handi eta potolo batzuek nire begi marroi-berde horietatik ihes egiten zuten.

Noizbait hil egingo nintzela pentsatzen nuen, hori beti nire buruaren barnean zebilen jira eta biraka. Nire gurasoek beti esaten zidaten: "Ez pentsatu horretan eta listo, oraindik ia laurogei urte edo gehiago dituzu bizitzeko, zu egon lasai, eta pentsatu gauza politetan".

Baina gauero amets eta pentsamendu berbera nuen gogoan, eta jada nazkatuta nintzen horrek ni urduritzeaz.

Baina 13 urte nituenean, gauzak aldatzen hasi ziren eta urduritasun horiek pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan ziren, eta urte bat igaro ondoren, jada ez zegoen halako pentsamendu itsusirik neure barnean.

Orain, 22 urte ditut eta Saharan bizi naiz. Gaur egun, hau bezalako herrialde behartsuetan hainbat gerra daude. Haur asko ikusi ditut gosez hiltzen edo edateko urik ez daukatelako. Hemen katarro arrunt batek akabatu zaitzake, edo baita gastroenteritis batek ere.

Orain familia asko laguntzen ditut eta haurrei irakurtzen eta idazten erakutsi diet. Jendeak esaten du hemengo egoera oso txarra dela, eta horregatik janaria, edaria, arropa... bidali behar digutela. Baina, nire irakasle batek erakutsi zidan hori ez dela irtenbidea. Adibidez, patatak bidali ordez, patatak ereiten erakutsi behar zaiola bertako jendeari, arropa bidali ordez, beharbada, josten erakutsi behar zaiela...

Bihar, Lekeitiora, nire jaioterrira, bueltatuko naiz nire familiarekin egoteko eta medikuntza probak egiteko.

Hilabete bat egongo naiz han, eta ondoren, hona bueltatuko naiz berriro.

#### **2014ko martxoaren 11, larunbata. Sahara.**

Gaur da eguna, 2 ordu barru autobusa hartu eta Afrikako mugara joango naiz, gero, ferrya hartu eta Melillara iritsiko naiz eta bertan hegazkina hartu eta gero Bilboko aireportura iritsiko naiz, han nire familia eta lagunak itxaroten egongo dira.

#### **2014ko martxoaren 11, larunbata. Lekeitio.**

Azkenean etxean! Oso pozik nago. Arratsaldeko 18:00etan iritsi naiz hona. Etxera etorri gara eta maleta desegin dut. Dutxatu egin naiz eta nire familia eta lagunekin afaltzera joan naiz. Orain, lo egiteko ordua da.

#### **2014ko martxoaren 17a, ostirala.**

Gaurko berriak ez dira oso onak, astelehenean mamografia egin nuen eta gaur goizean bularreko minbizia dudala esateko deitu didate. Esan dute gehienez ere 4 aste bizi naitekeela eta ez dagoela ezer egiterik hau geldiarazteko. Baina behin erori naizen zuloan ez naiz berriro eroriko. Beraz, ez naiz ezeren beldur izango, badakit gertatuko dena gertatuko dela eta hil behar badut hil egingo naizela. Zergatik galdu denbora eta negar egin? Zergatik izan hiltzearen beldur? Hori da nire galdera. Denbora ez dut alferrik igarotzen utziko.

#### **2014ko martxoaren 23a, asteazkena.**

Bost egun daramatzat ospitalean. Nik ez dut nire bizitza horrela bukatzerik nahi, ospitaleko ohe ziztrin batean etzanda. Mundu osoak ni esna amets egiteagatik gogoratzea nahi dut, zerbait egin dudalako, alegia. Beraz, espe-

ro dut hiru aste hauetan gertakizun berezi bat gertatzea, hori da nire eskakizun bakarra.

#### **2014ko martxoaren 30a, asteazkena.**

Ez dakit zergatik, baina gaur egun berezia dela sartu zait buruan. Horregatik, goizean goiz, esnatu bezain pronto, kable eta makina guztiak askatu ditut. Edozer gauza jantzi eta inork ikusi gabe ospitaletik atera naiz.

Txikitan oso gustuko nuen hondartzara joatea, oso gustura sentitzen nintzen han nengoenean. Inork ezin ninduen oztopatu han jolasean nengibilean. Niretzat hori leku magikoa zen.

Hara joatea erabaki dut, ea zenbait oroitzapen on datozkidan gogora.

Orain hondar fin eta zuriaren gainean etzanda nago. Aitortu behar dut une honetan inoiz baino libreago sentitzen naizela, askatasun osoan. Begiak itxi ditut eta... amets polit batekin eta oroitzapen gozonenekin bukatu dut nire zeregina, hasi nire hondartzako paseo amaigabea.

---

*Libre*



**Markel Urkia Unanue**

**4. SAILA**

PROSA

---

## *Paradisuaeren bila*

*Migrazioa* askotan entzuna nuen hitza zen, baina ez nekien ongi zein zen bere esanahia. Horregatik, udazkena heldu zenean, ez nuen ezer ulertu.

Ni Txurru naiz, uso gazte bat, Europako iparraldean jaioa udara honetan. Duela gutxi ikasi nuen hegan egiten eta oraindik ez naiz oso trebea. Nire anaia zaharrak, Joxek, historia zirraragarriak kontatzen zizkidan bere abenturei buruz, egun batean sonanbulu zegoenean hiru kilometrotara dagoen laku batera erori zela, eta gero gau erdian blai eginda itzuli behar izan zuela.

Goiz batean Joxek esnatu ninduen:

- Benga, Txurru, migratu egin behar dugula!
- Itxaron bost minutu -nik, ahozabalka.
- Bueno ba gu bagoaz

Eta nik pentsatu nuen: "e!!, Gu...?". Eta galdetu egin nuen:

- Zein gara gu?

Orduan konturatu nintzen berrogeita hamar uso gehiago zeudela niri itxaroten. Lotsa-lotsa eginda geratu nintzen, ez zidan inork abisatu eta.

- A! Bale, bale. E, Joxe, galdera bat, zein dira hauek guztiak? -esan nion erdi haserre erdi lotsatuta.

- Hau? Hau gure saldoa da. Ea, Txurru, bidean azalduko dizut.

Eta hegan hasi ginen beste berrogeita hamar txoriekin batera.

- Labur-labur azalduko dizut -esan zidan nire anaiak-. Nabarituko zenuen eguraldia gero eta hotzagoa dela, ezta?

Baietz egin nion buruarekin.

- Ba, horregatik orain hegoalderantz goaz, han goxo-goxo egongo gara eta janari gehiago izango da. Edozein usoren paradisua da.

Niri orduan aurpegia argitu zitzaidan. Baina Joxek hori ikusi zuenean:

- Ez poztu gehiegi ere, bidaia oso luzea da eta; mendi garaiak igaro behar-ko ditugu eta desertu eta itsaso luzeak zeharkatu eta janaria urria izango da. Hori guztia gutxi ez, eta ehiztariak saihestu behar di...

Puum!

Bat-batean eztanda bat entzun zen eta uso bat behera erori zen. Uso guztiak aztoratu egin ziren, eta anaiak gauza bat esan zidan:

- Ahaztu eta segi aurrera.

Uste dut inoiz esan didan gauza serio bakarra hau izan zela. Horregatik, buruan grabatuta geratu zitzaidan.

Egunak igaro genituen ezkutuka, zuhaitz tartetik ibiltzen eta hegaldi luzeak eginez. Baina azkenean lortu genuen, Gibraltarko itsasartean ginen, hogei uso neka-neka eginda, erdiak negarrez, atsekabeak hartuta galdu ziztuzten senitartekoengatik eta lagunengatik. Baina, hala ere, egin beharra zegoen, itsasoa zeharkatu eta paradisura sartu. Haizeak gogor jotzen zuen baina denok gurutzatu genuen. Orduan batek esan zuen:

- Beno, itzultzeko momentua iritsi arte.

Eta nik pentsatu nuen: "E!!! Itzuli???".

---

*Doraemon*



**Oihan Lopez Fraile**

**5 SAILA**

PROSA

---

## *Osabaren itzala*

Gari sailak genituen ezker-eskuin; gari sailak eta gari sailak. Lautada amaiezinak. Kilometroak eta kilometroak motorra martxan eta beti aurrera. Demontre! Ezin al genuen geldialdixoren bat egin bi orduz behinik behin, ala? Ez! Autoan sartu eta aurrera!

- Bide luzea dugu oraindik –esaten zuen amak beti.

Eta aitak atzetik:

- Ezin gara berandu iritsi, bestela kalean utziko gaituzte-eta. Garaiz iritsiko ez bagina ba al dakizue osaba zenbat kezkatuko litzatekeen, haren tokian jartzerik baduzue? Gizon urdinek ez ligukete sartzen ere utziko. Horrenbesteko bidaia egin, eta alfer-alferrik. Eta osaba... pentsa! Beldurrak airean!

Gurasoak kezkatuak zeudela ematen zuten, beti ordulariari begira. Pixagura neukala esaten nien, baina ordubete barru geratuko ginela erantzuten zidaten. Demontre! Pixagurak egoteko... ordubete... hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! Aguanta eta aguanta. Sikiera, lo pittin bat eginez gero... Kuluxkaren bat gutxienez... Baina, ez ba! Izan ere, bero egiten zuen, bero sargoria, eta, gainera, anaien arteko ika-mikak ez zion nire atsedinari lekurik uzten. Euskal Herria atzean utzia genuen, eta inguruotako klima oso bestelakoa zen. Lautadak, lautadak eta lautadak genituen ezker-eskuin, gari-soro ederrak gure autoko leihorearen alde bietan: neguan gaztaina koloreko, udaberrian belardi, udan eguzki koloreko. Kolore denak ezagun zituen gure auto grisak.

Egun hartan ere goiz jaiki ginen bidaia hura egiteko, oso goiz, eguna argitu baino askoz ere lehenago. Perurenako gasolindegian depositua puntaraino bete eta...

- Osaba, bagizek! –esan zuen aitak irribarre luze bat ezpainenat.

Hiru hilabete nituela egin omen nuen lehen aldiz bidaia hau: egun batez 700 kilometro egin, eta hurrengoan itzuli. Nahi ordu ez ginen iritsi, hala diote behintzat nire gurasoek : izugarrizko negar saioa bota nuela, lo gaixtotu egin nintzela, amaren titian bakarrik baretzen nintzela... eta ez dakit zenbat kontu! Geroztik, hamaika bat aldiz entzun behar izan ditut ordu hartakoak, arranopola!

Bat-batean, gari-sailen lautadak utzi eta herri zahar batean sartu ginen: pareta zaharrak eta huntzak leihoretan. Gazte jendea non ote zegoen? Eskolarik ez al zegoen herri hartan? Eta frontoirik ere ez? Adinekoak etxe atariko bankuetan, eliza atarian bi emakume.

- Hara, kanpandorrea zikoinak! –aurre hartu zidan anaiarik gazteenak.

Habiak nork lehenik ikusiko ibiltzen ginen, eta horretan oso abila nintzen. Baina, egun hartan, osaba nuen buruan, ez dakit zergatik. Beharbada aita eta ama urduri ikusten nituelako izango zen. Konturatzeke herria zeharkatua genuen, eta lautaden ondoren nik ez dakit zenbat eta zenbat herri zeharkatu genituen. Kontatzen ere aspertu nintzen.

- Askok falta da? –galdera egitera ausartu nintzen.

Aitak ez zuen galdera hori gogoko, eta beti gauza bera erantzuten zidan:

- Lehen baino gutxiago, hartu patxadan.

Eta hori esatearekin batera, Coca-Colari zurrut egiten zion.

- Nik ere hori banekien! –baina ez nintzen deus esatera ausartu, aita haserretuko ote zitzaidan beldurrez.

Ez dakit zenbat lautada eta ez dakit zenbat zikoina habia pasatu eta gero, azkenean, laranjondoak zeharkatu eta gero, noizbait iritsi ginen.

- Iritsi gara! Orain bai! Lasai, luzatu hankak, gerria, eta nahi duenak pixa egin dezala! –esan zuen amak. Ez zuen amak bi aldiz esan beharrik izaten, konturatzerako hiru anaiak kanpoan izaten ginen eta.

- Mahaia jartzera etortzeko esaten dizuedanean ez zarete hain azkar etortzen, e! –erdi broman esaten zuen segidan.



Autoa beti kanal baten bazterrean uzten genuen, etxe handi baten atarian. Kanal hura gu iritsi berritan lehor-lehorra egoten zen, baina hori barrerura! Aita eta hiru anaion artean ia leporaino betetzen genuen, halakoa izaten zen barruan ekartzen genuen estutasuna! Ezin pixarik egin ere, redios!

Arnasa pixka bat hartu eta gero, parez pare nuen etxeari begiratu nion. Berezia zen. Gure etxearen batere antzik ez zuen. Harritzarrez inguraturik zegoen, eta gainean alanbre puntadunak ageri ziren. Zertarako ote? Ertzetan, bestalde, txabola moduko eraikinak zituen, eta barruan berdez jantzitako gizonak zaindari. Sarreran zegoenari amak paperak erakutsi, osabaren izena esan, eta gu bezalako jende gehiago zain zegoen gela handi batera pasatu gintuzten. Han ez zegoen txorakerietan aritzerik.

- ¡Vayan pasando! –esan zuen sarrerako gizon urdinak noizbait, eta aitak azkar trasteak giltzapean utzi eta ilaran jartzeko keinua egin zigun.

Gela nazkagarri hura utzi eta burdina detektatzen zuen makina batetik pasatu behar izaten genuen gero. Amak ordularia eta eraztuna kentzen zituen, eta behin oso gaizki pasatu zuen gerrikoak soinu egiten ziolako.

- Ene, nik ez nuke horrelakorik gertatzerik nahi! Gizon eta emakume urdinen begiradek oso urduri jartzen ninduten. Gainera, zer esaten zidaten ere ez nien ulertzen...

Behin niri ere zerbaitek soinu egin zidan, eta teniseko erraketa moduko batekin gorputz osoa arakatu zidaten. Amak orduan esan zidan txikitari fardela ere kenarazi egiten zidatela. Zergatik baina?

Gero ateak. Ateak eta ateak. Bat itxi eta hurrengo zabaldu. Bat ongi itxi arte hurrengo zabaltzerik ez.

- Bizkor, zoazte bizkor, mutilak! –esaten zigun aitak, eta txoko-txokoan dagoen gela har ezazue.

Azkenean, osaba. Hori besarkada! Eskuen tinkatzea. Bizkarrean kolpeak, eta irri karkailak.

- Zer moduz, zer moduz hago? –aitak.

- Osaba! Osaba! –berriz guk pozez gainezka. Hainbeste gauza genituen elkarri kontatzeko: ikastolako kontuak, animalien bizimodua, etxeko kontu zaharrak... Nondik hasiko gara, osaba?

- Askok hazi zarete!

12 urte pasatu nituen joan eta etorri. 12 urtez ikusi dut atea ixten, eta osabari behatz erakuslea tindu morean zikintzen. 12 aldiz ikusi nituen nik gari soroak gaztaina koloreko, gero berde eta azkenik eguzki koloreko. Dozena bat urte asko da, erruz. Nire bizitzan haurtzaro osoa, pentsa. Amaren titia hartzen nuenetik, metro eta erdi ederki pasatu arte, mutil kozkor egin arte. Baina, lehengusurik zaharrenak hogeita bi urtez ezagutu du osaba han. Fikziozko osaba: hara bisitan joaten ginenean pasteltxo txikiak eskaintzen zizkiguna eta autoan opariak ematen zizkigun osaba kuttuna.

Osabaren etxea oso zikina zen, haren komunean ez zegoen esertzerik, eta aita-amek paretarik ez ukitzeko esaten ziguten. Maialenek behin hala esan omen zion:

- Osaba, bai zatarra dela zure itxia!

Eta osaba algaraka hasi omen zen. Eta nik berriz:

- Osaba, non daukazu garajea? –galdetu nion 5 urte nituela.

Burdin sareen artetik eskua kanpora atereaz, “han! Han atzean dago!”, erantzun zidan.

Gero, nik jarraian:

- Zein koloretakoa da ba zure autoa?

- Gorria! Gorri-gorria! Gerezi koloretakoa! –erantzun zidan oso serio jarrita.

Ametsezko munduan bizi izan naiz haurtzaroan, eta horrek lagundu nau osabarengana hain pozik joaten eta osaba horrenbeste maitatzen. Orain, 15 urte betetzear nagoen honetan, osaba kalean da, aita-amak hobeto ulertzen ditut, eta asko eskertzen diet denei fikziozko mundu magiko hura erai-ki izana.

---

*Zapel*



**Lur Gaztelumendi Beristain**

**5. SAILA**

PROSA

---

## *Kale kantoian*

Gitarraren soinua da nire bizitza, lana eta konpainia. Gitarra-jotzailea naiz, ka-leak alaitzen ibiltzen den agure zahartxo bat. Urte hauetan irabazitakoarekin erosi dudan liburu huts hau idazten ari naiz Juliaren omenez. Julia ez da nire emaztea, nire laguna da, zerutik niri begira dagoen aingerua, gitarraren soinu makala alai bihurtzen lagundu zidan adiskidea eta nire bizitza maitatzeko arrazoia:

68 urte-edo edukiko nituen kale izkinan botata nengoenean nire gitarrari soinua ateratzen. Kaletik pasatzen ziren guztiengandik burlak, irainak eta isekak lortzen nituen txanpon batzuk lortu beharrean. "Kale ilun eta estuko agure kaikua" izenez nintzen ezaguna, ez ateratzen nituen doinu gozoengatik. Arratsalde aldera, diru hots fin batek nire musika eten zuen. Begiak guztiz ireki eta aurrean nuen pertsonari begiratu nion; ume bat zen, neskato bat, soineko alai eta artilezko txapel bat zuen, baina are gehiago liluratu ninduen haren ahots fin eta gozoak ahoa ireki zuen momentutik:

- Zeren soinu makala, ez du kolorerik. Zure soinuak ez du bizipenik.
- Orduan, neskato, zergatik bota didazu txanpona nire txapelera? –erantzun nion.
- Julia naiz. Nola deitzen zara?
- Antoine.

Neskak irribarre handi bat atera zuen, pozez beterik, min guztiak sendatu ditza-keen irribarre potolo bat.

- Orain joan egin behar dut. Baina itzuliko naiz.

Neskatoa kale iluna bukatzen zen argitasunerantz joan zen, eta argi hartan galdu zen. Gaur egun ere haren irribarrean urtzen naiz, haren ahots ez-tian eta haren aurpegi lirainean.

Hurrengo egunean, ordu berean, korrika pauso motzek jotzen ari nintzen soinua moztu zuten. Bai, Julia zen, baina ez zettorren esku hutsik. Esku artean manta goxo bat eta libra erdi bat txokolate zekarren.

- Kaixo, Antoine! Zuretzako gauzak ekarri ditut. Manta hau gaueko hotzetatik babesteko eta txokolatea ba... Nori ez zaio gustatzen?

Juliaren barreek kale iluna argi bihurtzen zuten, nire belarri zaharrak gaztetzen eta gitarraren sokak estutzen. Neure buruari galdetzen nion ea nola erakarri nuen honelako miraria.

- Zein jolasetan jolastu ohi zara? Ba al duzu gustuko jolasik? Niri ezkutaketa jolasa gustatzen zait, baina azkenaldian ez naiz jolastu. Hitz gutxiko pertsona zara, e.

Haren galderek, kezkek, haren hitzek, esaldiek... kaleko zarata guztien isiltasuna ekartzen zuten. Bat-batean, ahots nagusiago batek moztu zuen Juliaren elkarriketa.

- Julia? Zertan ari zara kale ilun horretan? Etorri ona, segituan!
- Bai, ama, orain noa! –esan zuen kalearen bukaerarantz begira-. Bihar etorriko naiz, ez alde egin, mesedez.

Bigarren aldia zen neskatak korrika agur esan zuela argitasunean galduz. Manta goxoa hartu, eta lo sakonean murgildu nintzen.

Egunero etortzen jarraitu zuen, beti lasterka eskuan janaria eta jolasak ekarriz. Arratsaldeak laburrak iruditzen zitzaizkidan haren alboan, egunero jolas berriak ikasten nituen harekin eta nik gitarra jotzen erakusten nion ordainetan. Arratsalde batean, jolasean ginela, burumakurtu egin zen une batean.

- Jada galdetuko zenion zeure buruari zergatik etortzen naizen ...
- Julia, ez da beharrezkoa ezer esatea –erantzun nion gaizki zegoela konturatzear burua altxa zezan.

Neskatoak arnasa sakon hartu zuen.

- Jada ez naiz eskolara joaten, amak esaten dit ez dela beharrezkoa lagunak izatea, egia esan amak niretzako onena nahi izan du beti. Baina 9 urte ditut, jada ez naiz tuntuna, badakit gaixo nagoela ez dute nahi nik gaizki pasatzea, eta medi-kuak geroz eta tristeago begiratzen didala sumatzen dut. Gaixotasun larri bat dut eta egun gutxi geratzen zaizkidala kalkulatu dut.

Juliaren malkoek itsaso ilun eta zakar bat sortzen zuten, amorruez eta ahuldadez betea.

Nahiz eta jakin ezin nuela ezer aldatu gaixotasunarekiko, Juliaren aurpegi tristea aldatu behar nuela konturatu nintzen, neska gaixoa geroz eta ahulagoa ikusten nuen. Neskatoa musikazalea zenez, ideia bat bururatu zitzaidan.

- Arratsalde on, Antoinne!
- Julia, gaur zuretzako sorpresa bat daukat.

Julia musikaren kale kantoi zaharrera eramatea pentsatu nuen. Musikaren kale kantoia Pariseko musikari guztiak beren instrumentuari musika atetzen ibiltzen ziren leku magikoa zen. Kale kantoian inoiz ez zen musikarik falta, egun guztiak jotzen, saltoka eta dantzaz pasatzen zutelako. Leku zoragarria zen, kolorez betea, balkoietan kolore guztietako loreak egoten ziren, txoriak zuhaitzetan hartze zuten atseden musika goxoa entzunez eta eguzki argiaren laguntzaz kale kantoiak zuen magia zuen.

Paradisura iritsi ginen eta Juliaren aho zabalak haren poztasun guztiak salatu zituen. Niri begiratu eta besarkada sakon eta luze bat eman zidan. Ondoren, saltoka joan zen dantzara.

Eguna bukatu ostean, neskatoari eskutik heldu eta argitasunaren kale alaia utziz, kale ilun eta tristera heldu ginen.

- Mila esker, aitona, oso ondo pasatu dut. Errepika dezakegu?
- Nahi duzun guztietan.

Neskak bere opari garrantzitsuena oparitu zidan berriro. Horren ondoren, poltsikotik nire aitaren aho-soinua atera nuen.

- Hartu Julia. Nire aitaren aho-soinua da, urte hauetan nire alboan dagoela sentiarazi dit, baina inoiz ez dut jo. Zuk erabiera emango diozulakoan oparitzen dizut, horrela ni ez nagoenean nitaz gogoratzeko.

Nire eta Juliaren malkoak itsaso berean elkartu ziren eta besarkada batez agurtu genuen elkar.

- Julia! Julia! Baina zer egiten duzu berriro ere hemen, zein da agure hori? Bada-kizu ez zaidala gustatzen zuk ezezagunekin hitz egitea.
- Badakit, ama, baina ez da ezezagun bat, nire laguna baizik.
- Nola izango da ba zure laguna? Julia, badakizu ere ez dudala gustuko zu jendearekin harremantzea. Gainera, eskale bat besterik ez da eta. Goazen hemendik eta ez itzuli inoiz hona.

Bere amaren azkeneko hitzek bihotza hautsi zioten neska axolagabeari eta korrika, azkeneko aldiz, argitasunean galdu zen.

Zain egon nintzen, haren zain ea noiz berriz ere korrika etorriko bere solas eta janari gozoeekin. Egunak pasatu ziren, arratsaldeak eta gau ilun eta hotzak. Neskatxa oso ondo ezagutzen nuen eta itzuliko zela ikusi nuen haren azkeneko begiradan. Batzuetan, nire txapelean diru soinua entzutean begiak ondo ireki eta ea Julia ote zen begiratzen nuen... baina ezer ez.

Egunak pasatu ziren eta nire barruko arimak zerbait txarra pasatu zela oihukatzen zidan barru-barrutik. Horietako egun batean, paseo bat ematera atera nintzen, Julia bere amarekin ikusiko nuen esperantzan. Baina, hilerrri ondolik pasatzean, emakume baten negarrek hilerriko izkina batera erakarri ninduten. Gerturatu nintzenean emakumea ezaguna egin zitzaidan. Juliaren ama zen, eta negarrez ari zen. Negarrez aurreko harriari begira, negarrez aurreko harriaren zegoen plakaren izenari begira: Julia Monté.

Emakumearen ondoan belaunikatu nintzen nire begiek ikusten zutena ezin sinetsirik, ezin onarturik. Nire bizitza aldatu zuen neskatoa zerura joan zen, eta aingeru gazte berri bat sortu. Nire ilobatzat hartu zuen zeruan pozik hartzeko eskatu nien zeruko agintariei.

- Askok sentitzen dut esan nizekizun hitz horienegatik guztiengatik, zurekin oso zoriontsua zen. Ama gaiztoa izan naizela iruditzen zait, batez ere ez niolako pertsona batek behar duena eman: benetako lagun bat. Beldurra nuen, beldurra nuen nire alabarengatik, beldurra nuen zorionak ez ziolako asko iraungo. Baina oso egoista izan naiz...

Lurretik altxatu eta alde egiteko asmoa nuenean, andreak bere diru-zorro handitik aho-soinua atera zuen.

- Juliak zuri emateko eskatu zuen, horrela zure alboan egongo dela sentituko duzulako. Ez dakit zer egin hilabete hauetan, baina mila esker nire alabari emandako bukaera zorionsuagatik.

Udazkeneko hostoak erortzen diren moduan erori zitzaizkidan malkoak eta zure izenean musu emanez hiritik desagertu nintzen gaur egun arte.

Orain aho-soinu jotzailea ere banaiz eta egunak alaitzeko jotzen dut, musikaren kale kantoian nire lekua lortu dut eta abesti bakoitzaren amaieran irribarre egiten dut. Ez dakit non egongo naizen bihar, baina segur aski laguntzeko prest egongo naiz soinu makala, kolore gabea eta bizipenik gabea jotzen duten musikariei.

# *Poesia*

Oiartzungo XXVII. Prosa eta Poesia lehiaketa

**2014**



**Eider Maya Sanzberro**

**3. SAILA**

POESIA

---

## *Urtaroak*

Neguan,  
sorgin batek  
mundua zuri  
bihurtzen du.  
Beste aldetik,  
zuhaitzek  
arropa kentzen dute  
eta biluzik pasatzen dute  
negua.

Udaberrian,  
munduak  
txamarra zuria kendu  
eta soineko berdea  
jantzi ondoren,  
loreek zelaia  
koloreztatzen dute  
eta animalien hotsak  
entzuten dira jostari.


Udan,  
hodeiek eguzkitik  
ihes egin  
eta eguzkiak mundua  
urrez pintatzen du.  
Umeen  
irribarreek, berriz,  
mundua gobernatzen dute.

Udazkenean,  
zuhaitzen ileak usteldu  
eta hegan  
hasten dira.  
Zelaiak urrez jantzi  
eta berriro negua hasteko  
prestatzen da mundua.

Eta zuk,  
zer urtaro duzu nahiago?

---

*"Heidi"*



**Lohizune Telletxea Delgado**

**3. SAILA**

POESIA

---

## *Barruko mina*

Mina dut,  
mina.  
Ez dut besoan,  
ez eta hankan ere,  
mina dut bihotzean  
bihotzean bai,  
hori da  
bihotzean sartuta.  
Euriaren soinua entzuten dut  
bihotza taupaka,  
Ttaup-taup, taup-taup.  
Bihotza  
bihotza, euria eta ni.  
Nire mina,  
nire mina oraindik barruan dago,  
sartuta,  
bihotzean sartuta.

Niretzat iluna da dena,  
oraindik,  
baina eguzkiaren  
argi-izpi batek  
altxarazi nau,  
sartuta nuen mina  
atera dit  
argi-izpi hark.

Orain lau gara  
bihotza, euria, argia eta ni.  
Ez dago minik,  
ez eta malkorik ere,  
orain bai  
orain aske naiz!!

---

*Atenas*



**Markel Irastorza Zabalegi**

**4. SAILA**

POESIA

---

## *Ametsik handiena*

Jaio nintzenetik  
dudan ametsa,  
lo nagoenean  
burura etortzen zaidana,  
inoiz ahaztuko ez dudana,  
ametsik handiena,  
amets amaigabea...

Egunen batean  
lortuko dudana,  
saiakera guztien emaitza,  
zeru amaigabean  
dagoen helmuga,  
gauzarik ederrrena...

Gaurik luzeenetan  
pentsatzen dudana,  
benetako paradisua,  
denon ametsa,  
baina inork  
lortu ez duena...

Mundu triste honen  
irribarre ttikia,  
mundu honetan jarraitzeko  
behar dudana,  
ilusio guztien sorrera,  
eta aldi berean,  
amaiera...

Aspalditik amesten dudana,  
denon iragana,  
eta denon geroa,  
gauza on guztien hasiera  
eta bukaera...

Nire ametsik handiena  
amestea da...

---

*Txako*



**Izaro Telletxea Delgado**

**4. SAILA**

POESIA

---

## *Beldur naizelako*

Beldurra diot  
entzuteari.

Beldurra diot  
maitatzeari.

Beldurra  
ikusteari.

Beldurra  
sentitzeari  
bizitzeari.

Ezin dut beldurraren  
ARANTZA nigandik atera.

Goizeko argi izpiek esnatu naute.  
Eta nigana hurbiltzen ikusi zaitut.

Ukitu nauzu,  
laztandu nauzu,  
entzun zaitut,  
ikusi zaitut.

Nire barnean sentitu zaitut.  
Zure besoetan kulunkatu nauzu.

Goxo, goxo,  
lasai, lasai.

Zure begien koloreaz jabetu naiz  
lehen aldiz,  
zu ukitzen saiatu naiz  
lehen aldiz,  
zu laztantzen saiatu naiz  
lehen aldiz.

Orduan, beldurrak joan zaizkit.  
Zu zaudelako,  
zu zarelako,  
maite zaitudala  
konturatu naizelako.  
SARTUA NUEN ARANTZA  
ATERA DIDAZULAKO.

---

*Beldur*





**Naroa Del Rio Muguerza**

**5. SAILA**

POESIA


---

## *Gizakiak, gizaki hutsak*

Izateak zer dakar?  
Izan... edo egon.  
Nora joan?  
Non erori?  
Zer izan,  
Izaten ez dakizunean  
Nola izan,  
Izan ezin duzunean.

Arimari eutsi diezaioket  
ahotik ihes egin ez dezan.  
Mingaina hozkatu  
Irribarreak behartu  
Beste pertsona bat izango banintz bezala jokatu  
Dantza egin  
oinak apurtu arte.  
Egin dezaket,  
egin.  
Baina azken finean gizaki hutsa naiz  
lurrera erortzean odoletan hasten bainaiz  
Beldurdu eta hausten bainaiz.  
Txikitutako zati guztiak  
zertarako bateratu  
berriro harri berean eroriko bainaiz.

Agian galdera ez baita zergatik  
erantzunak ez badu zentzurik  
Agian erantzuna  
zergatik ez galdetzea delako.  
Eta gaur badenak  
bihar izateari utzi diezaioke  
ez duelako zentzurik  
ez dugulako zentzurik.  
Bagarela ziurtzat hartuz,  
nora joan.  
Bizitza kontrolatu nahian  
bizitzak kontrolean gaitu  
Denboraren esklabo gaitu.  
Baina guztiaren gainetik eguzkia badago  
zergatik etsi.  
Dena izatera hel gaitezke  
ezer ez garenean.  
Zerotik hasi eta infinitura iritsi  
Irri batek duen goxotasuna  
baloratuz  
sentituz  
Haizea bezain aske ibiliz,  
Aurrera jarraituz  
inora begiratu gabe.  
  
Ibili  
erori  
eta altxatzearen oinarrizko legea.  
Zer bilatu behar dut?  
Ilusioz beteriko bizitzek  
dezepzioz beteriko putzuetan bukatzen dute.  
Azken finean gizaki hutsak gara  
eta amets egitea libre omen da.



**Jokin Irastorza Zabalegi**

**5. SAILA**

POESIA

---

## *Iragana, geroa*

Iragana da oinarri,  
iragana zementu,  
norberaren bizitzan.

Denboraren joanak daraman abiaduraren adierazle.

Iragan hurbila  
oroitzapenen bilduma,  
pasatakoaren albuma.  
Memoriaren esklaboa:  
askotan ahazten zaizkigun une gozoen multzoa,  
edo ahaztu nahi ditugun,  
baina beti hor dirauten  
amesgaiztoen putzua.

Iragan urruna,  
memoriagandik ihesi,  
norberaren buruan ezkututzen ez dena.  
Baina, bihotzean jarraitzen du,  
iragan urrunak.  
Gure aurrekoen,  
antzinako euskaldunen borrokak;  
hildakoen azken arnasak.  
Inoiz bizi ez ditugun arren,  
bihotzak bizi dituzenez gero,  
ahaztuko ez ditugunak.  
Azken finean,  
arbasoen odola daramagu zainetan.  
Hori guztia da iragana, lehenaldia, historia...

Geroa, amestutakoaren  
imajinatutakoaren antzik ez duen errealitatea.

Geroa izan liteke amaigarria,  
edo amaigabea,  
sinesmenen baitan.

Geroa, oraindik idatzi gabe dugun patuaren liburu zuria,  
geroa amets-goxo,  
geroa amesgaizto.

Geroa denok ziurtatu nahi dugun denbora,  
aurrerantz jarraitzera animatzen, behartzen gaituena.

Hori guztia da geroa, etorkizuna, patu idatzigabea...

\* \* \*

Oraina da ur-jauzia,  
ikustea nola etorkizuneko urak iraganerantz jausten diren.

Oraina da etortzeke zegoena bizi  
eta bahetik pasatzea:

zati bat iraganaren oroimenean gordetzea  
ez beti nahi den zatia, ordea.

Oraina, zerumugarantz, etorkizunerantz,  
munduaren amaieraren bila doan itsasontzi bikiingoa:

milia luzez nabigatuagatik  
inoiz helmugara heltzen ez dena.

Oraina  
isurtzen dugun izerdi-tanta bakoitza,

isurtzen zaigun,  
edo isurarazten diguten  
malko garratz bakoitza.

Oraina bizipen,  
zorion-une,  
argi-printza bakoitza.  
Gure altxor xumea.

Beti da oraina, orainaldia, momentua, unea...  
Baina, horrelako zenbat biziko ditugun ez dakigunez,  
Carpe Diem, laguna!

---

*Gedi*

Antolatzailea:  
Euskara Batzordea



OIARTZUNGO  
UDALA

